

Ixillaren ertz barna  
dagiket urrats betez.  
Zentzunak guztizkoan  
dodazala atsedenez.

Zuk ditokezu miña  
ezpan-saka gartsuan.  
Ez, iñoiz bez ni larri  
ezpai-ari galduan.

Billa naizu, bai!, gaurtik  
Zeugan, Jainko. Or nozu!  
Zure da nire jzana,  
egiz maitezko kimu.

### ESKEA

Arrotzak dozuz, eta askotxo,  
ez dakit nitzat lekurik dan;  
baiña ateetan negoalarik,  
bego barruan gaixo au be,  
ur ainbat min dagon tokitik.

Legea beteaz gogoa  
zintzoro bizi da, belaxka,  
ta Zugan ditxaro soil-soillik.  
bere oiñazeen osakaia  
Jainko-Bildots ori, Zu, izanik.

Ar nagizu, otoi, Zeuretzat,  
ez begira nire ezeukia;  
esaidazu eskier noan.  
Baiña, ez, Zuk, buru makurka,  
«bai» ez ete daustazu esan?

Maitasun garaian ba'goaz,  
su-txingar bi egiñik alkar;  
egiaz ba'gabiltz batera,  
zugatz onen adar ostean  
noakizu kuku jartera.

Olan dala, Senar maitea,  
leia zaitez bizi naiteño  
lagun naila zure arretak;  
kisket oni oratzen dauatsat  
jagon naian zure gerizak.

Itxaro onen babes gozoan  
ez naz bildur samiñarena;  
Zuri, ene Kristo, oratua  
eriotzako une larrian  
biziak daukat eskua.

Ta Zu eskuan ba'zaukadaz  
**adiguri ta** bezuza aundiz,  
biok gagokez alkaturik,  
atsegiña ta oiñazea  
mimen-suatsuz eratsirik.

### ARRENA

**(Jeremi igarleak, bere aberria erbes-  
tetarren menpean ikusirik, biotz jota,  
egiñiko illeta eresia)**

Oroi, arren, Jaun altsu, gugaz jazo dana;  
begira, otoi, ikus gure irain-gerena.

Iñoren eskumende gure onibarrak,  
gure etxe-ondoan jaun be atzeritarrak.

Aitarik ez, ta umezurtz aul egiñik, itun;  
sor ginduezan amak, baltz jantzita alargun.

Txindiz erosiko ura gaixuok dedagu;  
su-egurra be erosi bearra daukagu.

Samak ariz lotuta baldan garabillez;  
lanez abailduentzat egotarorik ez.

Aigito-siritarrai ogi deskatsegu,  
gose-asperra zerbait aseko ba'dogu.

Oben egin ebenak il ziran asabak;  
geuk darguz, barriz, aren uts-ordain zigorrak.

Mendeko zireanak jaube biur yakuz;  
euren loki-biurrak nok ausiko dauskuz?

Jakia bizi-zoriz eskuratzen dogu,  
lekarora be gezi jarraika yatorku.

Laba gorian letxe, gosete-ekaitz izuak  
kiskal dauskuz biurtu soiñeko narruak.

Sion'go emakumak indarrez loituak,  
Juda-errietako neskutsak galduak.

Nagusiak dingiliz ipiñi ebezan,  
zarrakaz lotsarik ez eben iñon izan.

Lizunki erabilli ebezan gaztiak,  
zigorrez odolustu mutiko txikiak.

Orain ez dager zarrik ate ondoetan,  
gazte talderik bere ez eres-tokietan.

Biotz-alaia yaku negu-laiñoz jarri,  
baita dantza-lekua zurbil, negargarri.

Gain geukan burestuna oiñetara yaku.  
Ai!, oben egin gendun! Errukarriak gu!

Orretzek illun gure biotz pozkabiak,  
orrexek dauskuz lanbroz lausotu begiak.

Ondaturikan datza Sion'go mendia,  
ta non-nai dakusku azeri-usia.

Zuk, baiña, Jainko altsu, dirauzu betikoz;  
zure bakal-aulkia zutik aldi oroz.

Zer dala-ta, gaixuok aitzu gozuz, Jauna?  
Luzaro gu ete zure laguntzarik baga?

Itzul, Jaun on, gugana, ta gu Zurenera;  
aspaldiko egunak betorkuz ostera.

Zuk, baiña, betiko lez gaituzu egotzi;  
suminkor jarri zara gure kaltez, Urtzi.

### ARRATS-BERAN

Jauna!, arrats-beeratsen  
doa, guztiz azkar...  
Sakonean lo guraz  
dira aritz, astigar.

Jauna!, ez nagizu itxi  
itzal-arte bakar...  
Zimikoak barrunbez  
artegatsu nakar.

Egun da bizitzea,  
Gau, barriz, erio.  
Itzalak biotzari  
Gau'ra bultz dagio.